



ADMINISTRAZIO OROKORREKO TEKNIKARI LANPOSTUA BITARTEKO LANGILE BATEKIN BETETZEKO HAUTAKETA-PROZESUA ARAUTUKO DUTEN OINARRIAK

LEHENA. DEIALDIAREN XEDEA.

Deialdi honen xedea da bitarteko langile bat hautatzea lehiaketa bidez, Anoetako Udalean hutsik dagoen Administrazio Orokorreko Teknikari-lanpostua behin-behinean betetzeko.

Lanpostua A sailkapen taldeko A1 azpitaldekoa da eta 4. hizkuntza eskakizuna derrigorrezkoa ezarria du.

Beharrezko titulazioa: Zuzenbideko, Politika Zientzietako, Ekonomiako edo Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako unibertsitate gradua, Merkataritzako Intendente edo Aktuaria gradua, edo lege ezarritako baliokidea edukitzea.

Urteko soldata gordina: 50.600,74 €.

Lanpostua lanaldi osokoa da Anoetako Udalean aplikagarria den egutegi orokorraren baitan.

BIGARRENA. LANPOSTUAREN EGINKIZUN NAGUSIAK.

Udaleko zeharkako esparruak indartu, bereziki kontratazioan, etxebizitzan, giza-baliabideetan eta ondare-erantzukizunean; zehazkiago:

Kontratazioari dagokionez: Udalak sustatzen dituen kontratazio-prozeduren kudeaketan laguntzea: txosten eta baldintza agirien idazketa, kontratatzaile profila elikatzea, lizitazio elektronikoen jarraipena, aktak idaztea, kontratazio mahaletan parte hartzea, kontratuen idazketa.

Etxebizitzari dagokionez: Etxebizitza-parke publikoaren kudeaketa administratiboa eta koordinazio teknikoa: etxebizitza publikoaren eskatzaileei arreta ematea, etxebizitza publikoaren sustapenak antolatzea modalitate guztietan, etxebizitza-prozeduretan eta -zerbitzuetan hobekuntzak proposatzea, indarrean dauden politika publikoekin bat etorritik.

Ondare-erantzukizunari dagokionez: Espediente administratiboan instrukzio-lanak egitea, aseguru-etxeekin bitartekari-lanak egitea, prozedura judizialaren jarraipena egitea.

Giza-baliabideen kudeaketari dagokionez: Udalaren giza-baliabideen kudeaketan laguntzea: baimenen eta absentzien administrazioa, hautaketa-prozesuen prestaketa, langileen kontratazioen espedienteen kudeaketa, eta langileen prestakuntza eta ebaluazioari buruzko kudeaketa.

Lanpostuaren kategoria profesionala kontuan hartuta agintzen zaion beste edozein eginkizun.



HIRUGARRENA. PARTE HARTZEKO BALDINTZAK.

Deialdian parte hartzeko baldintza hauek bete behar dira:

- Zuzenbideko, Politika Zientzietako, Ekonomiako edo Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako unibertsitate gradua, Merkataritzako Intendente edo Aktuaria gradua, edo lege ezarritako baliokidea edukitzea
- Euskarazko 4. hizkuntza eskakizuna edo baliokidearen jabe izatea.

Hala ere, Euskal Autonomia Elkarteko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 43.2 artikuluari jarraituz, derrigorrezko 4. hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuak betetzeko hautaketa-prozesuetan, hautagaiek hizkuntza-eskakizun hori egiaztatzen ez badute, 3. hizkuntza-eskakizuna aplikatuko zaio lanpostu horri, bakar bakarrik deialdi horretako lanpostua betetzeko.

- Diziiplina-espediente bidez edozein Herri Administrazio edo Autonomia Erkidegoko organo konstituzional edo estatutarioen zerbitzutik bereizita ez egotea, ebazpen judizialaren arabera enplegu edo kargu publikorako ez gaikuntza erabatekoa edo berezia ez izatea, ezta funtzionarioen kidegoan edo eskalan sartzeko, edo lan-legepekoen kasuan, bereziak edo ezgaituak izan diren lanpostuko antzerako eginkizunak betetzeko.
- Beste estatu bateko nazionala izanez gero, ezgaitua edo egoera baliokidean ez egotea, ezta diziiplina zehapenik edo baliokiderik ez izatea, dagokion Estatuan baldintza berberetan enplegu publikora iristea eragotziko duenik, hain zuzen.
- Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Bateriaezintasunei buruzko 53/1984 Legean ezarritakoaren arabera, ezintasun edo bateraezintasun lege-kausaren batean sartuta ez egotea.

LAUGARRENA. ESKAERAK AURKEZTEKO MODUA ETA EPEA.

Deialdi honetan parte hartzeko, interesdunek LANBIDE Euskal Enplegu Zerbitzu Publikora bidali beharko dituzte hautagaitzak, eta zerbitzu horrek egingo du hautagaien aurre-hautaketa eta hautatutakoen "curriculum vitae"ak bidaliko dizkio Udalari.

- Lanbideko "curriculum vitae"n lehiaketako fasean baloratu behar diren merezimenduen inguruko datuak adierazi beharko dira. Ez dira kontuan izango curriculumean alegatu/jaso ez diren merezimenduak.
- Alegatutako merezimenduak ondoren egiaztatu beharko dira epaimahai kalifikatzaileak ezarritako era eta epetan.

LANBIDEKO lan eskaintzan izena emateko epea 15 egun naturalekoa izango da, deialdia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta.



BOSGARRENA. EPAIMAHAI KALIFIKATZAILEA

Epaimahaia partaide hauek osatuko dute:

Mahaiburua:

- Udaleko idazkaria

Bokalak:

- BI funtzionario.
- Enplegu Zerbitzu Publikoko teknikari bat, elkarrizketa-faserako.

Idazkaria:

- Funtzionario bat.

SEIGARRENA. HAUTAKETA PROZESUA.

Hautaketa prozesuak bi fase izango ditu.

1.fasea: Merezimenduen balorazioa. (gehienez 26 puntu)

Lehiaketako merezimenduekin puntuazio gehien lortzen duten lehen 5 izangaiak bakarrik hautatuko dira bigarren fasera pasatzeko. Bost izangai hauetako inork ez baluke prozesua gaindituko edota lanpostua hartuko, zerrendako seigarren eta hamargarren postuetan daudenek jarraituko dute hautaketa prozesuan eta gainerakoekin prozedura bera jarraituko da.

Fase honetan merezimendu hauek baloratuko dira:

- Edozein administrazio publikotan egindako zerbitzuengatik, deialdia egin duen administrazioan barne, Administrazio Orokorreko eskalako azpieskala teknikoan edo azpieskala teknikoarekin parekatutako kategorian, A1 azpitaldean, lan egindako hilabete bakoitzeko 0,08 puntu, gehienez ere 8 puntu.
- Edozein administrazio publikotan egindako zerbitzuengatik, deialdia egin duen administrazioan barne, Administrazio Orokorreko eskalako azpieskala teknikoan edo azpieskala teknikoarekin parekatutako kategorian, A2 azpitaldean, lan egindako hilabete bakoitzeko 0,07 puntu, gehienez ere 6 puntu.
- Lan-esperientzia arlo pribatuan: eskainitako lanpostuaren antzeko eginkizunak betetzen edozein enpresa edo elkartetan izandako esperientzia profesionala baloratuko da. Hilabete bakoitzeko 0,05 bat emango da, gehienez ere 6 puntu.
- Prestakuntza espezifikoa: lanpostuaren eginkizunekin lotura zuzena duten gaiei buruzko prestakuntza espezifikoa baloratuko da., betiere ikastaroa administrazio barruan egina bada (EUDEL, HAEE, etab.) edo Unibertsitate mailako erakunde batean. Puntu bat emango da 50 prestakuntza-ordutik gorako ikastaro bakoitzeko. Soilik onartuko dira azkeneko 5 urtetan egindako ikastaroak. Gehienez ere 6 puntu.

Merezimendu hauek ebaluatu ondoren, epaimahai kalifikatzaileak behin-behineko zerrenda osatuko du, udal web orrian iragarritz, eta 3 lan eguneko epea emango zaie erreklamazioak





aurkezteko, iragarkiaren biharamunetik kontaktzen hasita.

Balizko erreklamazioak ebatzi ondoren, emaitzen behin betiko zerrenda onartuko da, puntuazio gehien lortu duten lehen bost (5) izangaiak bigarren fasera deituz, hau ere udal web orriko iragarkiaren bitartez.

Administrazio publikoan egindako zerbitzuak egiaztatzeko modua: jatorrizko ziurtagiria edo ziurtagiri konpultsatua, sektore publikoko erakundeak egina, burututako lanpostua, haren egitekoak eta lan- edo funtzionario-harremanaren iraupena jasotzen dituen.

Enpresa pribatuan egindako zerbitzuak egiaztatzeko modua: bi modu hauetako baten bidez:

a) Enpresa pribatuaren jatorrizko ziurtagiria, zera adieraziz:

- Lanpostu mota, zereginak edo egitekoak.
- Lan-harremanaren iraupena.

b) Lan bizitzaren txosten eguneratua Gizarte Segurantzako diruzaintza nagusiak emana eta lan kontratua, lan postuaren izena zehaztuz.

Enpresa behar bezala identifikatu beharko da, gizarte segurantzako kotizazio kontuaren kodea nahiz identifikazio fiskal kodea dela medio.

2. fasea: Elkarrizketa. (gehienez 10 puntu)

Epaimahai kalifikatzaileak elkarrizketa egiteko eskatzen den gutxieneko puntuazioa lortu duten izangaiei elkarrizketa pertsonal kurrikularra egingo die. Nolanahi ere, epaimahai kalifikatzaileak puntuazio txikiagoa edo handiagoa eman ahal izango die, jasotako hautagai-kopuruaren arabera. Horren guztiaren helburua da une oro bermatzea hautaketa-prozesuan hautagai kopuru egokiak parte hartzen duela, ez handiegia, ez baxuegia.

Elkarrizketa-fasean, honako puntuazio-baremo honen arabera izangaiari egindako elkarrizketa pertsonala baloratuko da: curriculum-elkarrizketa pertsonala izangaiari, 10 puntu, gehienez.

Elkarrizketa horren helburua izango da egiaztatzea izangaia egokia dela eskaintzen den lanposturako, eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzutik jasotako curriculum vitae defendaatzea izango da, epaimahai kalifikatzaileko kideek planteatzen dizkieten gaien arabera. Hortik abiatuta, behar bezala frogatu beharko dira bere ibilbide profesionalean zehar eskuratutako konpetentziak eta gaitasunak, lanpostua betetzeko beharrezkoak direnak. Elkarrizketa fasera igaro eta elkarrizketa pertsonalera aurkeztzen ez diren izangaiak behin betiko kalifikazioa hau izango dute: "EZ GAI".

Balorazioa: Puntuazioa lortzeko, epaimahai kalifikatzaileko kide bakoitzaren puntuazioen batez besteko aritmetikoa egingo da, eta gehienez 10 puntu lortu ahal izango dira.

ZAZPIGARRENA. IZANGAIEN ONARTZEA.

Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, alkate-lehendakariak onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda onartu eta udaletxeko web orrian argitaratuko da. Era berean ebazpen horretan, epaimahai Kalifikatzaileko kideak izendatuko dira. Hiru lanegun izango dira erreklamazioak egiteko.



Erreklamaziorik ez baldin badago, behin-behineko zerrenda hori behin betikotzat joko da automatikoki. Erreklamaziorik balego, ordea, onartu edo baztertu egingo dira, behin betiko zerrenda onartzeko emango den ebazpen batean, eta jendaurrean jarriko da aurrekoaren modu berean.

ZORTZIGARRENA. JAKINARAZPENAK

Epaimahai kalifikatzailearen komunikazio eta jakinarazpen guztiak Anoetako Udalaren web-orriaren bitartez egingo dira.

BEDERATZIGARRENA. EPAIMAHAIAREN PROPOSAMENA.

Behin hautaketa-prozesuaren kalifikazioa amaitutakoan, Epaimahaiak punturik gehien erdietsi duen izangaia izendatzeko proposamena egingo du eta, aldi berean, berorren izena Udaleko web-orrian argitara emango du.

Elkarriketa izangaietako inork ez balu gainditu, Epaimahaiak deialdia hutsik uztea proposatuko du.

HAMARGARRENA. IZENDAPENA ETA PROBALDIA.

Eskumena duen organoak Epaimahaiak kalifikatzaileak proposaturiko izangaiari bitarteko funtzionario gisa jarduteko ahalmena emango dio.

Izendapena aldi baterakoa izango da eta indarrrik gabe geratuko da bera eragin zuen arrazoia amaitzean. Izendaturiko pertsonak izango ditu legeriak karrerako funtzionarioei ematen dizkien eskubide eta betebeharrak, lanpostuan iraunkortasunez egoteko eskubidea izan ezik.

Langileak 4 hilabeteko probaldia gainditu beharko du. Probaldi hau ebaluatzen garaian aintzat hartuko da izangaiak lanpostuko eginkizunak egoki egiten dituen. Zerbitzu buruak egingo du proba-epealdiari buruzko txostena, eta bertan gai edo ez-gai den adieraziko du. Txostenean ez-gai adieraziko balitz, izendapena amaitutzat joko da, horretarako organo eskumendunak arrazoituriko akordioa hartuko lukeelarik.

Azken kasu honetan zein proposaturiko izangaiak lanpostuari uko egingo balio, organo ahalmenduak behin behineko funtzionario izendatuko du, hautaketa gaindituta, puntuazio hurrenkeran hurrengo lekuan legokeen izangaia.

HAMAIKAGARRENA. GERTAKARIAK, INPUGNAZIOAK ETA LEGEDI OSAGARRIA.

Epaimahaiak ahalmena du gerta daitezkeen zalantzak argitzeko eta hautaketa-prozesuaren garapen egokirako beharrezko erabakiak hartzeko, oinarri hauetan aurreikusten ez diren gaietan.

Interesdunek deialdi eta oinarri hauen aurka egin ahal izango dute, bai eta deialdiaren ondorioz eta epaimahaiaren lanaren ondorioz egiten diren administrazio-egintza guztien aurka ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako epeetan eta moduan.



Oinarrietan aurreikusi gabekoetan, honako hauek aplikatuko dira:

Estatuko Administrazioaren zerbitzura diharduten langileak sartzeko erregelamendua, 364/1995 Errege Dekretuaren bidez onartua; 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena; 11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoarena ; 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bategina onartzen duena eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak

